

# Венетан Apaiz Santu bat

Joseba M. Goñi



Joan den apirileko 29'an —larogeita urte bete berriak, zahartzaro luze eta oparo bat, beraz, bizi izan ondoren— hil zitzaigun, Azkiotiako herrian, zenbait erreteriarrek hain maite izan zuten eta gendun, Don Marcos Gogorza, apaiz jauna (G.B.), eliztarron alde, kristau fededunen alde gure artean, urte luzez, hainbat lan egindako gizona.

Hitz labur eta apal hoek bijoaz, urteroko OARSO aldizkari honetan, betirako, herriko historiari finkaturik geldi dadin apaiz zintzo honen izena, oroimena eta, batez ere, gure aldetik, askoren izenean, gure esker ona. Ez da ahaztutzekoa, noski, gure artean, Parroki nagusiako apaiz laguntzaile bezala, ogeita hamalau urtez (1937-1971), Don Marcos apal eta ixilik lanean hiardun izana.

Gerra osteko urterik illun eta gogorrenetan azaldu zen gure artean eta zenbait erreteriarrentzat bere itz legunak, bere iritzi jatorrak, eta batez ere, bere Jainko- sena izan ziren, bai argi eta su disdiratsu, santutasunezko bideak erakutsiaz, Jainkoaganako irrika eta bide urratsak idekiaz, batez ere, konfesonariotik —iraskintza jarleku harrigarri horretatik— bere maixutasuna, bere gidari doaiak azalduz, animen onerako. Eskerrik asko, apaiz on eta apal honi lan horregatik!

Don Marcos-eri erretiro inguruko egunak iritxi zitzaizkionean, Erretereriako parroki nagusiako eliztarrak, ez zuten aukerarik izan, gizon honi omenalditxo bat, esker legez egiteko, eta gaurko lerro hauek, oso gutxi izanik ere, utsune hura nolabait betetzeko idatziak izan dira.